

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urteko 5. igandea

2010 Otsailak 7 (C urtea)

Patxi Otamendi

Isaias 6, 1-2a. 3-8

1 Korintiarrei 15, 1-11

Lukas 5, 1-11

- Jendeari itsasontzi batetik irakastea erabakitzen du Jesusek. Horretarako Pedro arrantzaleari ontzia eskatzen dio, gizon honi jatorri izenez 5 bider deituz: Simon. Aldi batean Simon izenari Pedro-rena eransten dio. Izen aurrerapena da, geroago jarriko baitio Jesusek Pedro ezizena (6:14). Hala ere hemen ez dago gaizki kokatuta, zeren ebanjelioaren irakurleak badaki nor izango den Simon behin Jesusen taldean txertatzean. Pasarteak dio bi ontzi zeudela: bata Simonena, bestea bi arrantzaleena: Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak. Hirurak arrantzale-kide ziren. Simonen anaia –Andres- aipatu gabe geratzen da.

- Bi dira eszenako pertsonai nabarmenak: Jesus eta Simon. Espreski honen ontzia erabili nahi du eta itsas barnera egin dezala eskatzen dio. Lehenera Simonek eragozpenak azaltzen dizkio: arrantzan duela gutxi aritu direla ezer lortu barik. Itun Zaharreko hiru pertsonai garrantzitsuak ere (Moises, Isaias, Jeremias) ez zioten Jainkoaren deiari bat-bateko baietza eman. Baina ezetzean geratu gabe, Jesusek eskatutakoa egiten du: ontzia itsas sakonera bideratu eta arrantzan hasi.

- Simon da Jesusekin zuzen-zuzenean mintzatzen den bakarra. Aldi batean, arrantza ugaria lortzean, “Maisu” (5:5) esaten dio. Beste batean “Jauna” (5:8), nahiz eta ondoren aitortu bekataria izanik ez duela merezi onartua izatea (edo ikasle gisa hartua). Hiru arrantzaleak beldurtuta daudelarik, soilik Simoni eskatzen dio ez izutzeko. Eta soilik berari adierazten “giza arrantza” izango dela. Lukasen arabera Piztueran (24:34) Simon izango da berpiztua topatzen lehena.

- Ontzitik irakaspena eman ostean arrantzan bi ontziak aritzen dira, biak arrain kopuru handia lortuz. Pedrok Jesusen maisutasun berezia onartu eta beste bi arrantzaleekin batera jarraitzaile bilakatzen da. Hortik aurrera arrantza taldekide zirenak Jesusen taldeko ikasleak izango dira. Horien lekukotasuna bitartez ezagutuko dugu guk Jesus. Horiek sortutako mugimendua denborarekin Eliza bilakatuko da.

- Pasarte honek baditu Elizaren sorrera eta bizitzarekin zenbait parekotasun. Eskatzen zitzaiona gehiegikoa zeritzon Simoni. Bekataria sentitzen zenez, nola ba hartuko zuen parte Maisuaren zereginetan?. Hala eta guztiz, baietza emanda laster jabetuko da aurretik bide aberasgarria zabaldu zaiola: ezagutzen ez zituen Jainkoaren bide batzuetan urratsak emango dituzte, ia ezer ulertzen ez badute ere.

Baliteke guri ere gehiegizko iruditzea gaur egun Jesusen jarraitzaile izan beharra. Eta erantzuna zalantza artean ematen dugu; batzuetan bai, beste batzuetan huts eginez. Elizaren historian izan dira jarraitzaile maila eman dutenak. Bitartean, beste zenbaitek akats egin du. Jesusek ez ditu, bederen, ikasle perfektuak. Horregatik Elizaren egoera azaltzeko hain egokia suertatzen da itsaso-erdian urperatze bidean dabilen ontzia. Arriskuaren erdian, Jauna hurbil ageri da. Dena ez dago galduta.

Simonek ikasle izateko deia ohiko zereginetan jaso zuen. Guri ere kristau erronka eguneroko gauzetan sustraitzen zaigu.

- Simon apostoluen artean talde-buru izatea suertatu zitzaion. Bai Jesus bizi zela, zein behin maisurik gabe geratu eta elkarteak lehenengo aldiak bizi izan zituenean.